

# Kanpoko eta etxeko rock doinu berrienak ekarriko ditu XV. Andoaingo Rock Jaialdiak

**Bi hamarkadetan zehar mundu osoko agertokietan jo duen Black Lips taldea da aurtengo izen nagusia. Ekainaren 10eko jaialdia girotzeko, edizio honetan ere eguerdian *Aperitif* saio berezia egingo da.**

Andoaingo Udaleko Kultura Sailak guztia prest du aurten berriz herriko eta inguruko rock zaleak gozaraziko dituen XV. Andoaingo Rock Jaialdirako. Hamabosgarren edizioa egingo du aurten eta urteurren biribil honetarako, bertako eta nazioarteko taldeek osatutako eskaintza zabala prestatu dute antolatzaileek.

Kartela aurkezteko egin duten agerraldian, **Txitxu Ruiz** zinegotziak adierazi du “aurtengo jaialdiak ez duela hutsik egingo, potente dator”. Berarekin batera izan da **Juancar García**, Bloody Mary promotorako ordezkaria eta jaialdiaren koordinatzailea; **Marijo Irastorza**, SALKIN elkartearen ordezkaria; eta **KRIN** taldeko musikariak.

Agerraldian kartel-buru den talderen nazioarteko ibilbidea azpimarratu da. Izan ere, **Black Lips** estatubatuarak dira ekainaren 10ean egingo de jaialdiaren talde izarra. Haiekin batera, Nafarroa plazako agertokia partekatuko dute **The Schizophonics**, **The Giant Robots**, **The Courettes**, **Chocolat Billy** eta **Nize** taldeek, 18:00etatik aurrera. Aurten ere, eguerdi aldean *Aperitif* saio berezia egingo da. Arratsaldeko kontzertu guztiak Nafarroa plazan izango dira, doan.

**Black Lips**-ek (Estatu Batuak) 1999 urtetik dihardu, mundu guztitik zehar, *garage* estilotik hasi eta gaur egungo rock sofistikuagora, beraien musika indartsua ezagutarazten. *Apocalypse Love* disko berria kaleratu zuten iaz eta lan berriko kantak aurkeztera etorriko dira Andoainera. Emanaldian ez da faltako zurrenik *Bad kids* kanta ezaguna, Spotify plataforman jada 23 milioi *stream*-etik gora dituen abestia, hain zuzen.

Haiekin batera, **The Schizophonic** herrikideak igoko dira Nafarroa plazako agertokira. Kaliforniarrak hauek, famatu egin dira eskaintzen dituzten emanaldi lehergarriengatik, izan ere, “Estatu Batuetako zuzeneko bandarik basatiena” dela esaten dute askok. **The Giant Robots**, suitzarrak dira eta hauek ere maisutasunez mugitzen dira eszenatokiaren gainean eta *underground* rock eszenan gero eta izen handiagoa dute. **The Courettes**, aldiz, bikote danimarkar-brasildarra da, aise mugitzen dena *garage* estiloaren, 60ko Girl Groupen soinuaren eta doo woop-aren artean. Kritika espezializatuak haien 2021ko lana urteko onenen artean hautatu zuen. **Chocolat Billy** eta **Nize** taldeek osatuko dute kartela. Lehenak, frantsesak, talde berezia dira, partaide guztiek elkarren artean trukatzeko instrumentuak zuzenean eta soinu basati eta erritmo sendoduna da beraien zibilua. Nize, ordea, bertakoak ditugu, bilbotarrak. Hirukote honek 2020an *Ezin* lanarekin egin zuen debuta, noise-rock, hardcore eta punk doinuekin.

## **Aperitif-a eguerdian**

---

Aurreko edizioetan bezala, jaialdia girotzeko *Aperitif*-a eguerdi parteko kontzertu sorta antolatu da. Emanaldiak SALKIN elkartearen laguntzari eta elkarlanari esker sustatuko dira, herriko plaza ezberdinetan: 12:00etatik aurrera **Arima** (Bilbo) Zumea Plazan; ondoren **Siglas** (Donostia) Plaza Morean; eta azkenik **Krin** taldea (Irun) Goikoplazan.

## El XV. Festival de Rock de Andoain traerá las melodías rock más actuales de fuera y de casa

El grupo **Black Lips**, que ha actuado durante dos décadas en escenarios de todo el mundo, es el principal nombre de este año. Para amenizar el festival del 10 de junio, en esta edición también se realizará un programa especial de *Aperitif* al mediodía.

El Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Andoain ya tiene todo preparado para la celebración del XV. Festival de Rock de Andoain. Este año celebra su decimoquinta edición y para este aniversario redondo, la organización ha preparado una amplia oferta compuesta por grupos locales e internacionales.

En una comparecencia para presentar el cartel de esta edición, la concejala **Txitxu Ruiz** ha avanzado que “el festival de este año no fallará, viene potente”. Junto a ella ha estado **Juancar García**, representante de la promotora **Bloody Mary** y coordinador del festival; **Marijo Irastorza**, representante de la asociación **SALKIN**; y los músicos de la banda **KRIN**.

En la rueda de prensa se ha destacado la trayectoria internacional del grupo que encabeza el cartel. Y es que los estadounidenses **Black Lips** son la banda estrella del festival que se celebrará el 10 de junio. Junto a ellos, compartirán escenario en la Plaza Nafarroa **The Schizophonics**, **The Giant Robots**, **The Courettes**, **Chocolat Billy** y **Nize**, a partir de las 18:00 horas. Un año más, en torno al mediodía se realizará una nueva edición del *Aperitif*. Todos los conciertos de la tarde serán gratuitos en la Plaza Nafarroa.

**Black Lips** (Estados Unidos) trabaja desde 1999 por todo el mundo, desde el *garage* hasta el rock más sofisticado de nuestros días, dando a conocer su potente música. El año pasado publicaron su nuevo disco *Apocalypse Love* y vendrán a Andoain para presentar los temas de su nuevo trabajo. En la actuación no faltará probablemente la conocida canción *Bad kids*, que ya cuenta con más de 23 millones de *streams* en la plataforma Spotify.

Junto a ellos subirán al escenario de la Plaza Nafarroa sus compatriotas **The Schizophonic**. Estos californianos se han hecho famosos por las explosivas actuaciones que ofrecen, ya que muchos dicen que es “la banda más salvaje en directo de Estados Unidos”. **The Giant Robots**, son suizos que también se mueven con maestría sobre el escenario y cada vez tienen más nombre en la escena *underground rock*. **The Courettes**, en cambio, es un dúo danés-brasileño que se mueve con soltura entre el estilo *garage*, el sonido de *Girl Group* de los 60 y el *doo wop*. La crítica especializada eligió su trabajo de 2021 como uno de los mejores del año. **Chocolat Billy** y **Nize** completarán el cartel. Los primeros, los franceses, son un grupo especial, ya que todos los participantes intercambian instrumentos en directo y su sello es un sonido salvaje y con un ritmo fuerte. **Nize**, sin embargo, es la apuesta local de la edición, bilbaíno. Este trío debutó en 2020 con el trabajo *Ezin*, con sonidos *noise-rock*, *hardcore* y *punk*.

### **Aperitif al mediodía**

---

Como en ediciones anteriores, para amenizar el festival se ha organizado una serie de conciertos *Aperitif* al mediodía. Las actuaciones se promocionarán gracias a la ayuda y colaboración de la asociación **SALKIN** en las diferentes plazas de la localidad: a partir de las 12:00 horas en la Plaza Zumea tocará **Arima** (Bilbao); a continuación, en la Plaza Morea actuará **Siglas** (Donostia) y finalmente en la Plaza Goikoplaza el grupo **Krin** (Irun).